Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko apirilaren 28a, asteazkena — 77 — Miércoles, a 28 de abril de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko diru laguntzen oinarri arautzaileak eta 2021eko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak 2021eko apirilaren 20ko bileran honako erabakia hartu du:

Basoek onura ugari sortzen dituzte, batetik, produktu berriztagarriak eta ingurumena errespetatzen dutenak egiteko beharrezko lehengaiak eskaintzen dizkigute eta, bestetik, zeregin garrantzitsua betetzen dute ongizate ekonomikoari, dibertsitate biologikoari, karbonoaren ziklo osoari, oreka hidrologikoari, higaduraren kontrolari eta hondamendi naturalen prebentzioari dagokienez; horiez gain gizarte eta aisialdiko funtzioa ere betetzen dute.

Basoek sortzen dituzten produktuen artean, higieneko produktuak eta elikadurarako enbalajeak lortzeko behar den lehengaia dago. Beste lehengai batzuk ere sortzen dira, eta energia berriztagarrien ekoizpenakoak ere bai. Alderdi hauek guztiak estrategikoak dira koronabirusak eragin duen osasun krisia dela eta.

Bestalde, urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Mendienak, 96.3 artikuluan ezartzen duenaren arabera, bidezkoa da mendien funtzio ekonomikoak, ekologikoak eta sozialak modu iraunkorrean mantendu eta garatzearren hainbat inbertsio, ekintza edo lan egiteko Foru Aldundiak eman ditzakeen laguntzen oinarri arautzaileak onartzea eta, horien bidez, onuradunek bete beharreko baldintzak, mendien ezaugarriak, eta abar zehaztea.

Laguntza hauek jarraian adierazitako araudiaren eremuan ematen dira: Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamendua, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) emango diren landa garapenerako laguntzei buruzkoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2015-2020 Landa Garapenerako Programa, luzatuta dagoena. Dirulaguntzen foru araudia bat dator dirulaguntza horiei aplikatu behar zaien Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauarekin eta arau horren erregelamendua onartzen duen apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuarekin.

Horrekin, Gipuzkoak baso sektoreari dagokionez dituen erronkei aurre egin nahi zaio: hala nola sarbideak hobetzea, baso suteen prebentzioa, kalitatezko lehengai berriztagarria sortzea eta biodibertsitatea mantentzea. Halaber, koronabirusak eragindako krisiari erantzun hobeagoa ematen laguntzen da, epidemiari aurre egiteko lehengaien ekoizpena sustatuz.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 16.1. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Bases reguladoras y convocatoria 2021 de las ayudas para el mantenimiento, mejora y desarrollo de los bosques en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 20 de abril de 2021, ha adoptado el siguiente acuerdo:

Los montes generan múltiples beneficios, ya que proporcionan la materia prima necesaria para la elaboración de productos renovables y respetuosos con el medio ambiente y desempeñan una función importante en materia de bienestar económico, diversidad biológica, ciclo global del carbono, equilibrio hidrológico, control de la erosión y prevención de catástrofes naturales y desempeñan además una función social y recreativa.

Entre los productos que generan los bosques se encuentra la materia prima necesaria para la obtención de productos higiénicos, embalajes de productos alimenticios y otras materias primas, así como la producción de energías renovables, aspectos todos ellos que se han manifestado como estratégicos en la crisis sanitaria originada por el coronavirus.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 96.3 de la Norma Foral 7/2006, de 20 de octubre de 2006, de Montes de Gipuzkoa, procede aprobar las bases reguladoras de la concesión de ayudas por la Diputación Foral para diversas inversiones, acciones o labores, tendentes a contribuir, de una manera sostenible, al mantenimiento y desarrollo de las funciones económicas, ecológicas y sociales de los montes, estableciendo los requisitos que deben cumplir las personas beneficiarias, características de los montes, etc.

Estas ayudas se conceden en el marco de lo dispuesto en el Reglamento (UE) n.º 1305/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de diciembre de 2013, relativo a la ayuda al desarrollo rural a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) y en el Programa de Desarrollo Rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2015-2020, en situación de prórroga. La regulación foral de estas ayudas se ajusta a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en el Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprobó el Reglamento de dicha norma foral.

Con ello se pretende hacer frente a los retos que tiene Gipuzkoa en lo relativo al sector forestal, tales como la mejora de accesos, la prevención de incendios forestales, la obtención de materia prima renovable de calidad y el mantenimiento de la biodiversidad. Así mismo se contribuye a mejorar la respuesta a la crisis ocasionada por el coronavirus al fomentar la producción de materias primas necesarias para hacer frente a la epidemia.

Conforme al artículo 16.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde al Consejo de Gobierno Foral la competencia para la aprobación de las bases reguladoras de la concesión de estas ayudas.

EK\CV GAO-I-2021-02698

Dirulaguntza horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta daude.

Hori horrela, Diputatuen Kontseiluak, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak, zeinak erabaki honen I. eranskin gisa doazen.

*Bigarren.* Onartzea dirulaguntzen 2021eko ekitaldiko deialdia, zeina erabaki honen II. eranskin gisa doan.

*Hirugarren.* Baimena ematea 2021eko deialdian 3.107.090,00 euroko gastua egiteko, ondoko xehetasunen arabera:

— 04.3 azpineurria: Azpiegiturak egitea basogintza garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko.

1 0450.500.770.00.03 2021: 28.000,00 €.

5 0450.500.770.00.03 2022:44.211,00 €.

— 08.1 azpineurria: Baso-sartzea eta baso azalera sortzea.

1 0450.500.770.00.01 2021: 1.395.266,00 €.

5 0450.500.770.00.01 2022: 734,00 €.

— 08.3 azpineurria: Suteek, natur hondamendiek eta zorigaitzek eragindako kalteei aurre hartzeko laguntza.

1 0450.500.770.00.04 2021: 67.789,00 €.

5 0450.500.770.00.04 2022: 1.000.000,00 €.

— 08.6 azpineurria: Basogintzako teknologietarako eta baso-produktuak eraldatzeko, mobilizatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.

1 0450.500.770.00.05 2021: 50.000,00 €.

5 0450.500.770.00.05 2022: 10.000,00 €.

— 15. neurria: Baso-ingurumeneko zerbitzuak, klima zerbitzuak eta basoen zaintza.

1 0450.500.470.00.02 2021: 20.000,00 €.

5 0450.500.470.00.02 2022: 8.090,00 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe.

*Laugarren.* Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean sortuko dituzte ondorioak erabaki honen bidez onartzen diren oinarri arautzaileek.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Bide hori erabili aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete partikularrek Diputatuen Kontseiluari, aipatutako egunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egokitzat hartutako beste edozein ere aurkez daiteke.

Donostia, 2021eko apirilaren 20a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (2698)

Dichas ayudas se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES) de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud, este Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación y a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas para el mantenimiento, mejora y desarrollo de los bosques en el Territorio Histórico de Gipuzkoa; se acompañan como anexo I al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria de 2021 de dichas ayudas, que se adjunta al presente acuerdo como anexo II.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 3.107.090,00 euros, para hacer frente a la convocatoria del año 2021, conforme al siguiente desglose:

— Submedida 04.3: Realización de infraestructuras destinadas al desarrollo, modernización o adaptación del sector forestal.

1 0450.500.770.00.03 2021: 28.000,00 €.

5 0450.500.770.00.03 2022: 44.211,00 €.

— Submedida 08.1: Forestación y creación de superficies forestales.

1 0450.500.770.00.01 2021: 1.395.266,00 €.

5 0450.500.770.00.01 2022: 483.734,00 €.

— Submedida 08.3: Prevención de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes.

1 0450.500.770.00.04 2021: 67.789,00 €.

5 0450.500.770.00.04 2022: 1.000.000,00 €.

— Submedida 08.6: Inversiones en tecnologías forestales y en transformación, movilización y comercialización de productos forestales.

1 0450.500.770.00.05 2021: 50.000,00 €.

5 0450.500.770.00.05 2022: 10.000,00 €.

— Medida 15: Servicios silvoambientales y climáticos y conservación de los bosques.

1 0450.500.470.00.02 2021: 20.000,00 €.

5 0450.500.470.00.02 2022: 8.090,00 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*Cuarto.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía, las personas particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Gobierno Foral en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.

San Sebastián, a 20 de abril de 2021.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (2698)

EK\CV GAO-I-2021-02698

I. ERANSKINA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak.*

## I. TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

*1. oinarria. Xedea.*

Oinarrien xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko dirulaguntzak ezartzea, Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) emango diren landa garapenerako laguntzei buruzkoak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2015-2020 Landa Garapenerako Programaren eremuan.

*2. oinarria. Onuradunak.*

Laguntzak Gipuzkoan kokatutako baso eta baso azalerentzat emango dira. Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategi baten titular diren pertsona fisiko nahiz juridikoek, betiere betetzen badituzte Gipuzkoako dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan onuradun izaera lortzeko ezartzen dituen baldintzak, nahiz oinarri arautzaile hauetan dagokion laguntza lerrorako ezartzen dituen baldintza bereziak. Gainera, Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatuta egon behar dute.

Eskatzailearen adina eta Segurtasun Sozialeko kotizazioak baloratzeko garaian titular ordezkariaren profila hartuko da kontuan, nahiz eta ustialekuan titularkide gehiago egon Eskatzailea kapital-sozietatea den kasuetan pertsona ordezkaria dagokio agiri publikoaren bitartez egiaztatu beharko da.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3 artikuluarekin bat etorriz, onuradunak izan daitezke ondasun erkidegoak edo beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak, nortasun juridikorik izan ez arren, baldin eta proiektuak, jarduerak edo jokaerak aurrera eramateko gai badira edota dirulaguntza emateak eskatzen duen egoeran badaude.

*3. oinarria. Laguntzen finantzaketa.*

1. oinarrian aurreikusitako laguntzetara bideratutako baliabide ekonomikoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren aurrekontu kredituetatik etorriko dira.

*4. oinarria. Prozedura antolatu eta izapidetzeko eskumena duen organoa.*

Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzua da prozedura izapidetuko duen organoa. Hala, behar besteko jarduketak egingo ditu ofizioz, dirulaguntza emateko proposamena egiteko behar diren datuak erabaki, ezagutu eta egiaztatzearren.

*5. oinarria. Laguntza emateko ebazpena.*

1. Laguntzak emateko erabakia Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak hartuko du.

2. Dirulaguntzak esleitzeko prozedurak gehienez ere sei hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi behar dira, eskaerak aurkezten diren egunaren biharamunetik aurrera. Gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpena jakinarazi edo argitaratu ez bada, eskaera ezetsia izan dela ulertu behar du interesdunak.

ANEXO I

*Bases reguladoras de las ayudas para el mantenimiento, mejora y desarrollo de los bosques en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

## TÍTULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

*Base 1. Objeto.*

Estas bases tienen por objeto establecer, para el Territorio Histórico de Gipuzkoa, el régimen de ayudas para el mantenimiento, mejora y desarrollo de los bosques, en el marco de lo dispuesto en el Reglamento (UE) n.º 1305/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de diciembre de 2013, relativo a la ayuda al desarrollo rural a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) y en el Programa de Desarrollo Rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2015-2020.

*Base 2. Personas beneficiarias.*

Las ayudas se concederán para los bosques y superficies forestales situados en Gipuzkoa. Las personas beneficiarias, sean personas físicas o jurídicas titulares de una explotación agraria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, deben cumplir tanto los requisitos generales para obtener la condición de persona beneficiaria contemplados en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como los requisitos específicos recogidos en estas bases para cada una de las líneas de ayuda de que se trate; además, deberán estar inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias.

A la hora de valorar la edad y cotización a la Seguridad Social de la persona solicitante se tendrá en cuenta el perfil del titular representante, independientemente de que existan más cotitulares en la explotación. Cuando la persona solicitante sea una sociedad de capital deberá acreditarse mediante documento público la persona representante de la misma.

Conforme al artículo 10.3 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, podrán también acceder a la condición de beneficiarias las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención.

*Base 3. Financiación de las ayudas.*

Los recursos económicos destinados a las ayudas previstas en la base 1 procederán de los créditos presupuestarios del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Base 4. Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

El órgano instructor del procedimiento será el Servicio de Montes y Gestión de Hábitats, que realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de concesión de la subvención.

*Base 5. Resolución de concesión.*

1. La resolución del procedimiento corresponderá al diputado o diputada foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

2. El plazo máximo que se establece para resolver y notificar la resolución de los procedimientos de concesión de las ayudas es de seis meses contados a partir del día siguiente al de la presentación de la solicitud. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado o publicado resolución expresa, legitima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud.

*6. oinarria. Onuradunek bete beharreko eskakizunak.*

Oinarri hauetan arautútako dirulaguntzen onuradunek, bertan jasotako betebeharrez gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak ezarritako gainontzeko eginkizunak bete beharko dituzte.

Onuradunak konpromisoa hartuko du oinarrietan eta dirulaguntzen espedientean ezarritako baldintzak betetzeko, bai eta egindako inbertsioari eusteko ere. Onuradunari dagozkion arrazoiengatik landaketa edo baso berritze lana eranskinean ezarritako aprobetxamendu txanda baino lehen utzi edo suntsitzen bada, inbertsioa ez dela bete ulertuko da. Kasu horretan, onuradunak jasotako dirulaguntzak eta dagozkion interesak itzuli beharko ditu.

Azpiegitura inbertsioetan, diruz lagundutako inbertsioa mantentzeko epea zazpi (7) urtekoa izango da, egin zenetik.

Laguntzaren xede diren lursailen inter vivos eskualdaketetan, oinarri hauen arabera, titularitate berriak subrogatu beharko ditu onuradun pertsonak hartu zituen konpromisoak, betetzearren. Horrela ez bada, onuradunak jasotako dirulaguntzak eta dagozkion interesak itzuli beharko ditu.

*7. oinarria. Ordainketa.*

Dirulaguntzaren ordainketa laguntza oinarritzen duen inbertsioa egitearen baldintzapean egongo da, eta, behin gauzatutako inbertsioei dagozkien ziurtagiri eta ordainagiriak jasota, eta dagokion araudiari jarraituz egin direla egiaztatuta, ordainketaren baimena emango da eta onuradunari ordaindu beharreko dirulaguntzen behin betiko diru kopurua zehaztuko da.

*8. oinarria. Ebazpena aldatzea.*

Laguntzak eman eta ordaintzeko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzeak, betiere laguntzaren xedea betetzat jotzen bada, eta beste laguntza batzuk jasotzeagatik diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa gainditzeak, dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldaraz dezakete. Horretarako, eskumena duen kudeaketa organoak dagokion aldaketa ebazpena emango du eta onartutako dirulaguntzen zenbatekoak doituko ditu.

*9. oinarria. Kontrolak, ez-betetzeak, zigorrak eta itzulketak.*

1. Aplikagarri izango dira, batetik, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, ezarritako itzulketa eta urraketen eta administrazio zehapenen erregimena; eta, bestetik, martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Arauei buruzkoak, arautzen dituen finantza kontroleko prozedurak.

2. Laguntza eskaerak zein ordainketa laguntza emateko ezarritako baldintzak bete izana benetan egiaztatzen dela bermatzeko moduan kontrolatuko dira.

3. Aprobetxamendu txandara heldu ez diren baso landaketen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak baso erabilera aldaketa bat baimentzen duenean, eska dezake lursailean egindako lanengatik jasotako dirulaguntzak itzultzea.

*10. oinarria. Laguntzak murriztea eta kanpo uztea.*

1. Hartutako konpromisoen urraketaren bat antzemanez gero, dela konpromiso horiek ez betetzeagatik, aitortutako eta egiaztatutako azalerak bat ez etortzeagatik, baso erabilera aldatzeagatik edo dena delakoagatik, bidezko iritzitako murrizketak edo bazterketak aplikatuko dira. Nekazaritza Ustiategien Erregistroan aitortutako lursailaren erabilera diruz lagundutako

*Base 6. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Las personas beneficiarias de las subvenciones reguladas en estas bases, además de las obligaciones expresamente contempladas en las mismas, deberán cumplir las establecidas en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa que resulten de aplicación.

La persona beneficiaria se comprometerá al cumplimiento de las condiciones establecidas en estas bases y en el expediente de subvenciones, así como al mantenimiento de la inversión efectuada. El abandono o destrucción de la plantación o reforestación con anterioridad al turno de aprovechamiento establecido en el anexo por causa imputable a la persona beneficiaria será considerado incumplimiento de la inversión, en cuyo caso la persona beneficiaria deberá reintegrar las subvenciones recibidas y los intereses correspondientes.

En inversiones en infraestructuras el plazo de mantenimiento de la inversión subvencionada será de siete (7) años desde su realización.

En las transmisiones inter-vivos de terrenos objeto de medidas de apoyo en base a estas bases la nueva titularidad deberá subrogarse en el cumplimiento de los compromisos asumidos por la persona beneficiaria. En caso contrario la persona beneficiaria deberá reintegrar las subvenciones recibidas, incrementadas con los intereses correspondientes.

*Base 7. Pago.*

El pago de la subvención estará condicionado a la realización de la inversión que fundamente la ayuda, y una vez recibidas las certificaciones y justificantes de pago relativos a las inversiones ejecutadas y verificado que éstas se han realizado de acuerdo con la normativa correspondiente, procederá la autorización del pago y la determinación del importe definitivo de la ayuda a pagar a la persona beneficiaria.

*Base 8. Modificación de la resolución.*

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión y pago de las ayudas, siempre que se entienda cumplida el objeto de esta y, en su caso, la superación del límite máximo de la cuantía subvencionable por obtención concurrente de otras subvenciones, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las subvenciones. A estos efectos, por el órgano gestor competente se dictará la oportuna resolución de modificación en la que se ajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

*Base 9. Controles, incumplimientos, sanciones y reintegros.*

1. Será de aplicación el régimen de reintegros e infracciones y sanciones administrativas establecido en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como los procedimientos de control financiero regulados en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Las solicitudes de ayuda, así como el pago se controlarán de forma que se garantice la comprobación real del cumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de la ayuda.

3. En el caso de forestaciones que no hayan llegado al turno de aprovechamiento, cuando la Diputación Foral de Gipuzkoa autorice un cambio de uso forestal podrá condicionar dicha autorización al reintegro de las ayudas recibidas por trabajos realizados en dicha parcela.

*Base 10. Reducciones de las ayudas y exclusiones.*

1. Cuando se detecte alguna infracción de los compromisos suscritos, bien sea por incumplimiento de los mismos, por diferencia entre superficies declaradas y comprobadas, por cambio de uso forestal, etc., se aplicarán las oportunas reducciones o exclusiones. El uso de la parcela declarado en el Registro de Explotaciones Agrarias deberá coincidir con la actividad

EK\CV GAO-I-2021-02698

jarduerarekin bat etorriko da. Bestela, SIGPACen eguneratzeko erreklamazioa aurkeztu beharko du eta dirulaguntza emango da erreklamazio ebazpenaren arabera.

2. Kasu bakoitzean eta urraketaren larritasunaren arabera, gero eta isun handiagoak aplikatuko dira, jasotako laguntzaren murrizketatik hasi eta jasotako diru kopuru guztiak zein berandutze interesen itzulketara zein programatik baztertzera iritsi arte.

3. Kasu guztietan aplika daitekeen interes tipoa indarrean dagoen diruaren legezko interesa izango da.

4. Behar ez den ordainketaren bat egingo balitz, interesak ordaintzeko betebeharra ez litzateke aplikatuko, baldin eta ordainketa eskumena duen agintariaren beraren akatsaren ondorioz izan balitz eta onuradunak bere aldetik fede onez jardun izan balu.

5. Onuradunak edozein moduz kontrol lana oztopatuko balu, konpromisoa ezetsi eta itzuli egingo dira jasotako diru kopuruak zein ondorioztatzen den legezko interesa, zuzenbidearen arabera legozkiokeen bestelako erantzukizunen kalterik gabe.

6. Laguntza baten onuradunek, jakinarazpenetik 10 egun igaro ondoren, laguntzari uko egin badiote, inbertsio bererako laguntza eskatzeko eskubidea galduko dute, hasierako eskaeratik gutxienez, 3 deialdi igaro arte, halabeharrezko edo behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Irizpide bera erabiliko da dirulaguntzari uko egin ez dioten arren, dirulaguntza esleitzerakoan adierazitako aurrekontu ekitaldiaren barruan onartutako inbertsioak egin ez dituzten onuradunekin.

*11. oinarria. Konpromisoetatik salbuesteko halabeharrezko arrazoiak.*

1. Dirulaguntzak jasotzeko hartutako konpromisoak ez betetzea justifikatzen duten ezinbesteko arrazoiak edo aparteko gorabeherak daudela ulertuko da, besteak beste, honako kasu hauetan:

a) Onuraduna hiltzea.

b) Onuradunaren iraupen luzeko lanbide ezintasuna.

c) Ustiategiaren zati garrantzitsu baten desjabetzea, desjabetze hori konpromisoa izenpetutako egunean aurreikusten ez bazen.

d) Ustiategiaren baso azalerari larriki eragiten dioten ezbehar naturalak gertatzea.

2. Gorabehera horiek Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari idatziz jakinarazi beharko zaizkio, beharrezko frogekin batera, onuraduna hori egiteko egoeran dagoenetik hasi eta hamar laneguneko epearen barruan.

*12. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura eta urteroko deialdia.*

1. Dirulaguntzak elkarren arteko lehia prozeduraren bidez emango dira, eta azpineurri bakoitzean ezarritako lehentasun irizpideak erabiliko dira. Dirulaguntzak aurkeztutako eskaeren konparazio bidez emango dira, irizpide horien arabera eta deialdian ezarritako kreditu erabilgarriaren mugaren arabera, eta balorazio handien lortu duten eskaerei emango zaie. Hala eta guztiz ere, eskaerak aurkezteko epea amaitzean ikusten bada aurkeztu den eskaera kopururako nahikoa aurrekontu dagoela, ez da beharrezkoa izango baldintzak betetzen dituzten eskaeren arteko lehentasun hurrenkera ezartzea.

Aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko ebaluazio batzorde bat eratuko da; eta batzorde horrek ebazpen proposamen bat emango du, egindako ebaluazioaren emaitza ze-

subvencionada. En caso contrario deberá presentarse reclamación de actualización del SIGPAC, estando condicionada la ayuda a la resolución de la reclamación.

2. En cada caso y en función de la gravedad de la infracción, se aplicarán penalizaciones progresivas que abarcan desde la reducción de la ayuda recibida, a la devolución de la totalidad de las cuantías percibidas más los intereses de demora, y hasta la exclusión del programa.

3. El tipo de interés aplicable en todos los casos, será el legal del dinero.

4. En caso de pago indebido, el pago de intereses no se aplicará si el pago hubiese sido fruto de un error de la propia autoridad competente y la persona beneficiaria por su parte hubiera actuado de buena fe.

5. En caso de que la persona beneficiaria obstaculice por cualquier medio la labor de control, se procederá a la anulación del compromiso y al reintegro de las cantidades percibidas más el interés legal que resulte, sin perjuicio de otras responsabilidades que en derecho procedan.

6. Las personas beneficiarias de una ayuda concedida que hayan renunciado a la misma una vez transcurridos 10 días desde la notificación de la concesión, perderán, salvo en los casos de fuerza mayor u otros debidamente justificados, el derecho a solicitar ayuda para la misma inversión a la que han renunciado hasta pasadas al menos 3 convocatorias desde la solicitud inicial. Igual criterio se aplicará para la persona beneficiaria que, sin haber solicitado la renuncia, no haya ejecutado las inversiones aprobadas dentro del ejercicio presupuestario asignado en la concesión de la ayuda.

*Base 11. Causas de fuerza mayor eximentes de los compromisos.*

1. Se reconocerá la existencia de causas de fuerza mayor o de circunstancias excepcionales justificativas del no cumplimiento de los compromisos adquiridos para la percepción de las ayudas, entre otros, en los siguientes casos:

a) Fallecimiento de la persona beneficiaria.

b) Incapacidad profesional de larga duración de la persona beneficiaria.

c) Expropiación de una parte importante de la explotación, si esta expropiación no era previsible el día en que se suscribió el compromiso.

d) Calamidades naturales graves que afecten seriamente a la superficie forestal de la explotación.

2. Dichas circunstancias deberán notificarse por escrito al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, aportando las pruebas pertinentes, en el plazo de diez días hábiles a partir del momento en que la persona beneficiaria se halle en situación de hacerlo.

*Base 12. Procedimiento de concesión y convocatoria anual.*

1. El procedimiento de concesión de las ayudas será el de concurrencia competitiva utilizando los criterios de priorización establecidos en cada medida. La concesión de las subvenciones se realizará mediante la comparación, según dichos criterios, de las solicitudes presentadas a fin de otorgar, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios. No obstante, se podrá exceptuar del requisito de fijar un orden de prelación entre las solicitudes presentadas que reúnan los requisitos establecidos para el caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente, atendiendo al número de solicitudes una vez finalizado el plazo de presentación.

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración, que emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la

EK\CV GAO-I-2021-02698

haztuta; eta organo eskumendunari bidaliko dio, onar dezan. Ebaluazio batzorde hori ondorengo kideez osatuta egongo da:

a) Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendari nagusia, lehendakari gisa.

b) Bi bokal:

— Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko zerbitzuburua.

— Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuko teknikari bat.

Batzorde horrek bidezko irizten dituen aholkularitza eta txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratzeko.

2. Urtero deialdi bat egingo da eta bertan zehaztuko dira ekitaldi horretan dirulaguntzetarako guztira xedatuko den dirua, inbertsioak baloratzeko moduluak, eta eskaerak aurkezteko epeak eta baldintzak.

3. Deialdia ebatzi ondoren onuradunen batek laguntzari uko egiten badio, eta horrek kreditua sortzea eragiten badu, kreditu hori beste onuradun bati eman dakioke, beste deialdi bat egin beharrik gabe; beste onuradun hori izango da onuradun izateko baldintzak bete arren nahikoa kreditu ez dagoelako laguntzarik gabe geratu direnen zerrendako hurrengoa, balorazio irizpideen ondorioz erabaki den hurrenkeraren arabera. Hala ere, baldintza izango da uko egitearekin askatu den kreditua nahikoa izatea ukatutako laguntzetakoren bati gutxienez erantzuteko. Aukera hau baliatuz gero, jakinarazi egingo zaio dagokion eskatzaileari, hamar eguneko epe luzaezina emanez dirulaguntza proposamena onartzeko; proposamena onartzean dirulaguntza emateko erabakia hartuko da eta eskatzaileari jakinaraziko zaio.

*13. oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa eta gehieneko eta gutxieneko kopurua.*

1. Dirulaguntzen zenbatekoak oinarri hauetan ezartzen dira dirulaguntza lerro bakoitzerako.

2. Ezarritako dirulaguntzek inoiz ez dute gaindituko ez inbertsioaren % 100a ez diruz lagundutako inbertsioen guztizkoa.

3. Inbertsioa, azalera edo gutxieneko edo gehieneko inbertsioen batura, onuradun eta urte bakoitzeko, azpineurri bakoitzean ezarriko da.

*14. oinarria. Diruz laguntzeko baldintza orokorrak.*

1. Inbertsioak, lagungarritzat jotzeko, laguntza lerro bakoitzean aurreikusitako baldintza bereziez gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta eta Nekazaritza Ustiategien Erregistroan izena emanda dauden finketan gauzatu beharko dira.

2. Diruz lagundutako jarduerek ondorengo gaietan indarrean dagoen araudia bete beharko dute: basokoa, ingurumeninpaktua, natura babesa eta ondare kulturala.

3. BEZak eta oro har edozein zergak edo tasak ez du laguntzarik jasoko.

4. Inbertsioen banakako kostua modulatu egingo da baldin eta egin beharreko lanen tipologiak horretarako bide ematen badu. Ezohiko kasuetan eta behar den bezala zurituta daudenean, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako txostenaren bidez, laguntzaren xede diren inbertsioetarako balorazio espezifikoak egingo dira, aplikagarri diren moduluetan desberdinak direnak.

5. Inbertsioen balioa modulatu gabe dagoenean, gauzatutako inbertsioak zuritzerakoan gutxienez onartutako inbertsio lagungarria zuritu beharko da; alabaina, ez da zuritu beharrik izango fondo publikoen bitartez finantzatu ez den soberako gastua.

6. Onuraduna egunean egongo da zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan.

evaluación efectuada y será elevada al órgano competente para su aprobación. Dicha Comisión estará compuesta por los miembros que figuran a continuación:

a) El director o directora general de Montes y Medio Natural, en calidad de Presidente/a.

b) Dos vocales, que serán:

— El jefe o jefa de Servicio de Montes y Gestión de Hábitats.

— Un/a técnico/a del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats.

La Comisión de Valoración podrá solicitar el asesoramiento y la emisión de los informes técnicos pertinentes para una adecuada valoración de las solicitudes presentadas.

2. Mediante convocatoria anual se establecerán el importe total destinado a las ayudas en el correspondiente ejercicio, los módulos para la valoración de las inversiones y los plazos y condiciones de presentación de las solicitudes.

3. Una vez resuelta la convocatoria, si se generase crédito por renuncia por parte de alguna de las persona beneficiarias que resultaron beneficiadas podrá asignarse, sin necesidad de nueva convocatoria, a la siguiente solicitud de la lista que reúna los requisitos y que no haya sido beneficiaria por falta de crédito, siguiendo el orden que haya resultado de la aplicación de los criterios de valoración establecidos, y siempre y cuando con la renuncia se haya liberado crédito suficiente para atender al menos una de las solicitudes denegadas. Esta opción se comunicará a la persona solicitante correspondiente, a fin de que acceda a la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez días; una vez aceptada, se dictará y notificará a la misma el acto de concesión de la subvención.

*Base 13. Importe y límite máximo y mínimo de las ayudas.*

1. Las cuantías de las subvenciones se establecen en estas bases para cada línea de ayudas.

2. En ningún caso podrán superar las subvenciones establecidas el 100 % de la inversión o de la suma de inversiones auxiliadas.

3. La inversión, superficie o suma de inversiones mínimas y máximas auxiliables por persona beneficiaria y año se fijará en cada una de las submedidas.

*Base 14. Condiciones generales de subvencionabilidad.*

1. Las inversiones, para poder tener el carácter de auxiliables, además de los requisitos específicos contemplados en cada línea de ayudas, deberán realizarse en fincas ubicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y que se encuentren inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias.

2. Las actuaciones objeto de subvención deberán cumplir las regulaciones establecidas en materia forestal, de impacto ambiental, de conservación de la naturaleza y patrimonio cultural.

3. El IVA y en general cualquier impuesto o tasa no serán subvencionables.

4. El coste unitario de las inversiones será objeto de modulación cuando la tipología de los trabajos a realizar permita dicha modulación. No obstante en casos excepcionales debidamente justificados mediante informe técnico del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats, podrán realizarse valoraciones específicas para las inversiones objeto de solicitud de ayuda, distintas de las expresadas en los módulos aplicables.

5. Cuando el valor de las inversiones no se encuentre modulado, la justificación del importe de las inversiones ejecutadas alcanzará como mínimo el importe de la inversión auxiliable aprobada, sin que sea extensible esta obligación al exceso de gasto no financiado por los fondos públicos.

6. Las personas beneficiarias deberán estar al corriente de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.


EK\CV GAO-I-2021-02698

7. Onuradunak ezingo du egon administratiboki edo penalki zigortuta, horrek dirulaguntza publikoak eskuratzeko eskubideak galtzea badakar; halaber, ez da egongo horretarako desgaitzen duen legezko debeku batean, sexuaren ziozko bereizkeria egitea barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoak, ezartzen duenaren arabera.

8. Onuradunek bete beharko dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan ezarritako baldintzak, aplikagarriak diren heinean.

9. Inbertsioen banakako kostua modulatua ez dagoenean, eta gastu lagungarria azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gaindituz gero (obren kasuan 40.000,00 euro, BEZik gabe; eta, zerbitzu edo horniduren kasuan, 15.000,00 euro, BEZik gabe), onuradunak egiaztagiria aurkeztu beharko du eskaerarekin edo egindako inbertsioen ziurtapenarekin batera, hornitzaile desberdinei gutxienez hiru eskaintza eskatu dizkiela egiaztatzeko, salbu eta diruz lagundutako gastuen ezaugarri bereziak direla medio merkatuan ondasuna hornitu edo zerbitzua emateko nahiko enpresa ez badago. Aurkeztutako eskaintzen artean proposamen ekonomikorik onena hautatuko da, salbu eta eskatzaileak espresuki beste aukera justifikatzen badu eta Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak onartzen badu.

10. Azalerari lotutako baso operazioen kasuan, 20 ha-tik gorako lursail bakar bati edo 35 ha-tik gorako sakabanatutako eremu bati eragiten badie, dirulaguntza emateko baldintza izango da baso kudeaketa iraunkorrerako plan bat, baso antolaketako proiektu bat edo antzerako tresnaren bat aurkeztea.

*15. oinarria. Eskaerak nola eta noiz aurkeztu behar diren.*

1. Dirulaguntza eskaerak inprimaki informatizatuan beteko dira eskatzaileei dagozkien Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan, inbertsioa egin aurretik (urteko deialdian jasotako kasu justifikatuetan izan ezik), eta inprimakiarekin batera, laguntza lerro bakoitzean zehaztutako agiri teknikoez gain, urteko deialdian adierazitakoa aurkeztu beharko da.

2. Azaleran oinarritutako laguntzen kasuan, SIGPACen araberako lursailen kokapenaren planoa erantsi behar da, poligonoak eta lur zatiak identifikatuta, baita txostena eta obra ziurtagiria egiteko beharrezkoak diren datuak ere.

3. Eskaeran edo aurkeztutako dokumentazioan akatsen bat, gabeziaren bat edo zehaztasun falta antzematen bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio eta honek 10 eguneko epea izango du horiek zuzentzeko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 21.1 artikuluan xedatutakoa betez.

4. Eskaerak aurkezteko epea deialdi bakoitzean zehaztuko da.

5. Ustialeku eta deialdi bakoitzean laguntza espediente bakarra onartuko da. Espediente bakoitzean laguntza lerro ezberdinak sartu ahal izango dira.

*16. oinarria. Dirulaguntzen justifikazioa.*

1. Apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duenak, 49.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, onuradunek oinarri honetan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko dute laguntzak justifikatzeko. Era berean, Ekono-

7. Las personas beneficiarias deberán no encontrarse sancionadas penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se hallarán incursas en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

8. Las personas beneficiarias deberán cumplir los requisitos establecidos en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que les sean de aplicación.

a. Kalteei aurre hartzeko beharrezko diren basoko jarduerak, hala nola, bakanketak, sastrakak kentzea, hobetze mozketak, inausketak, birrinketa eta inausketen, bakanketen edo bestelakoen arrastoak erretiratzea.

b. Suteei edo bestelako arrisku naturalei aurre hartzeko eskala txikiko jarduera lokalak: maila lokaleko suebakiak egitea, pistetako ezpondetan sastrakak kentzea.

c. Basoko suteak itzaltzeko ur hornidura puntuak ezartzea.

2. Aplika daitezkeen zenbatekoak eta laguntzaren ehunekoa.

g) Forestaciones que utilicen especies incluidas en el catálogo español de especies invasoras.

h) Forestaciones que utilicen especies prohibidas en aplicación de la normativa fitosanitaria.

i) Forestaciones que se realicen en montes de utilidad pública.

j) Forestaciones con pino insignis, dado su mal estado sanitario actual.

5. Criterios de prioridad.

Se seguirá un sistema de puntuación basándose en los siguientes criterios de selección de las personas beneficiarias:

1.— Actuaciones en montes con Proyectos de Ordenación o Plan Técnico de Gestión forestal sostenible (PTGFS) aprobado por la Administración: 25 puntos.

2.— Edad de la persona beneficiaria ≤ 55 años: 10 puntos.

3.— Explotación agraria con unidad de trabajo agrario (UTA) correspondiente al sector agrícola o ganadero superior o igual a 0,5:10 puntos.

En caso de empate a puntos, se priorizarán las inversiones que supongan un menor presupuesto.

*Base 22. Submedida 08.3: Prevención de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes.*

1. Actuaciones subvencionables.

Esta medida se diseña con el fin de acometer actuaciones de prevención de daños por incendios, desastres naturales y catástrofes en masas forestales.

Estas actuaciones se pueden dirigir a acometer acciones que refuercen las condiciones naturales de defensa de los árboles o del terreno o a mejorar las infraestructuras de defensa ante esos riesgos.

Serán subvencionables desde esta submedida los costes de las siguientes operaciones:

a. Actuaciones selvícolas de prevención como aclareos, desbroces, podas, resalveos, triturado, retirada de restos de poda o clareo u otras operaciones forestales que fueran necesarias.

b. Actividades locales de prevención a pequeña escala contra los incendios u otros riesgos naturales: creación de cortafuegos a nivel local, desbroce de taludes de pistas.

c. Establecimiento de puntos de abastecimientos de agua para la extinción de incendios forestales.

2. Importes aplicables y porcentaje de ayuda.

<table>
<tr><th>Jarduera<br>Actuación</th><th>Deskribapena<br>Descripción</th><th>Modulua<br>Módulo<br>(€/ha)</th></tr>
<tr><td colspan="2">Ilaraka edo lanadarearen inguruan sastrakak kentzea<br>Desbroces por filas o en el entorno de la planta</td><td>360</td></tr>
<tr><td colspan="2">Sastrakak erabat kentzea<br>Desbroces extensivos</td><td>480</td></tr>
<tr><td>Bakanketak<br>Clareos</td><td>Bakanketa<br>Clareos</td><td>280</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Inausketak<br>Podas</td><td>Koniferoen behe inausketa<br>Poda baja coníferas</td><td>505</td></tr>
<tr><td>Hostozabalen behe inausketa<br>Poda baja frondosas</td><td>370</td></tr>
<tr><td colspan="2">Hostozabalen kimu hautaketa<br>Selección de brotes frondosas</td><td>505</td></tr>
</table>

EK\CV GAO-I-2021-02698

| *Jarduera*<br>*Actuación* | *Deskribapena*<br>*Descripción* | *Modulua*<br>*Módulo*<br>*(€/ha)* |
|---|---|---|
| Zelaitzea, hesiekin edo suebakiekin<br>Empradizamientos, como barreras o cortafuegos | | 920 |
| Hobetze mozketak, hondakinak atera gabe<br>Resalveos sin eliminación de restos | | 610 |
| Inausketen, entresaken eta hobetze mozketen gerakinen kudeaketa<br>Gestión de restos de poda, claras y resalveos | Inausketen, entresaken eta hobetze mozketen gerakinak eskuz kentzea<br>Retirada manual de restos de poda, claras o resalveos | 250 |
| | Inausketen, entresaken eta hobetze mozketen gerakinak birrintzea eta ezpaltzea<br>Triturado o astillado de restos de poda, claras y resalveos | 500 |

Basolanen taulan jaso ez diren lanetarako (eta horien kostuetarako), laguntzaren zenbatekoa egindako inbertsioaren edo gastuaren kostu errealaren arabera kalkulatuko da, betiere kostuen moderazioaren printzipioa kontuan hartuz. Pistetako ezpondetan sastrakak kentzeko lanek eragindako kostuek ezingo dituzte gainditu 0,40 € pistaren metro bakoitzeko.

Oinarrizko laguntzaren ehunekoa % 50 izango da.

Oinarrizko dirulaguntzaren portzentajea handitu ahalko da, gehienez % 90 arte, eskaera egitean gorabehera hauek gertatzen badira:

— Eskatzailearen adina ≤ 55 urte: % 15 arteko gehikuntza.

— Nekazaritza ustiategia, nekazaritza edo abeltzaintza sektoreari dagokion Nekazaritzako Lan Unitatea (ALU) 0,5-koa edo handiagoa duena: % 10 arteko gehikuntza.

— Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoa (BKIPT) onartuta edukitzea: % 10 arteko gehikuntza.

— Ustiategiari baso azalera gehitu bazaio, 0,5 ha gutxienez azken urtean, betiere hasierako baso azalera 20 ha baino txikiagoa bada: % 5 arteko gehikuntza.

Diruz lagundu daitekeen gehienezko inbertsioa edo inbertsioen guztizkoa 30.000 € izango da onuradun bakoitzeko eta urteko.

3. Onuradunak.

Dirulaguntza hau jasoko dute lurren titular pribatuek, eta horiei lotutako elkarteek.

4. Baldintza bereziak.

Suebakiek gutxienez 12 m-ko zabalera izango dute.

Gutxieneko azalera 0,5 hektarea izango da. Pistetako sastrakak kentzeko lanen kasuan, diruz lagundu daitekeen gutxieneko luzera 400 m izango da.

Baso suteak itzaltzeko ur-biltegiak eta -guneak egiteko eskaera espedienteei ondorengo dokumentuak erantsiko zaizkie: obren kokapen eta xehetasun planoak, aurrekontu arruntak eta sortutako azpiegitura zertarako den azaltzen duen txostena. Egokituta egon beharko du, hala egokituz gero, faunarentzat elementu ekologiko funtzioa betetzeko.

Pistetako ezpondetan sastrakak erabat kentzeko lanak basoko pistei dagozkie eta ez etxebizitzetarako landa bideetakoei. Ez da dirulaguntzarik emango pistetako ezpondetan sastrakak kentzeko aurreko 5 urteetan lan hori egiteko dirulaguntzaren bat jaso badute. Egindako lanak kamioien pasaera ahalbideratu beharko du.

Sastraka garbiketak baso lanekin lotuta egongo dira eta gehienez ere bitan jasoko dute dirulaguntza txanda batean.

Para aquellas operaciones (costes) no recogidas en la tabla adjunta de trabajos forestales, los importes de ayuda se calcularán en base al coste real de la inversión o gasto realizado, atendiendo siempre al principio de moderación de costes. Los costes de desbroces de taludes de pistas no podrán superar los 0,40 € por metro de pista.

El porcentaje básico de subvención será del 50 %.

Este porcentaje básico de ayuda se verá incrementado, hasta un máximo del 90 %, en los siguientes porcentajes en caso de concurrir alguna de estas circunstancias en el momento de realizar la solicitud:

— Edad del/la solicitante ≤ 55 años: incremento de un 15 %.

— Explotación agraria con unidad de trabajo agrario (UTA) correspondiente al sector agrícola o ganadero superior o igual a 0,5: incremento de un 10 %.

— Contar con un Plan Técnico de Gestión Forestal Sostenible (PTGFS) aprobado: incremento de un 10 %.

— Explotación en la que se haya incrementado la superficie forestal en al menos 0,5 has en el último año, siendo la superficie forestal inicial inferior a 20 has: incremento de un 5 %.

La inversión o suma de inversiones máximas auxiliables por persona beneficiaria y año será de 30.000 €.

3. Personas beneficiarias.

Se concederá esta ayuda a titulares y gestores de tierras privados y sus asociaciones.

4. Requisitos de carácter específico.

Los cortafuegos tendrán una anchura mínima de 12 m.

La superficie mínima de actuación será de 0,5 hectáreas. En el caso de desbroce de pistas la longitud mínima subvencionable será de 400 m.

Los expedientes de solicitud de construcción y adecuación de depósitos y puntos de agua para la extinción de incendios forestales deberán ir acompañados de los planos de situación y detalle de las obras, presupuestos ordinarios y memoria explicativa de la función que debe cumplir la infraestructura creada. Deberán estar acondicionados, en su caso, para cumplir la función de elemento ecológico para la fauna.

Los desbroces extensivos de taludes de pistas se referirán a pistas forestales, no a caminos rurales de acceso a viviendas. No se subvencionarán los trabajos de desbroces de taludes de pistas que en los 5 años anteriores hayan sido objeto de subvención por dicho concepto. El desbroce deberá posibilitar el paso de camiones.

Los desbroces de sotobosque deberán estar asociados a otros trabajos selvícolas y se subvencionarán en un máximo de dos veces a lo largo del turno.

EK\CV GAO-I-2021-02698

Ez da dirulaguntzarik emango zuhaitzaren enborrari edo inausketaren osteko egur hazkundearen kalitateari kaltea eragiten dieten inausketa txarrengatik. Era berean, ez da laguntzarik emango neurriz gaineko inausketengatik edo inausketa goiztiarrengatik.

Behe-inausketak gutxienez tantaiaren 2 metro hartuko ditu eta, gehienez ere, zuhaitzaren garaieraren erdia. Honela egingo dira:

— 12 urte bete aurretik, intsinis pinuetan.

— 16 urte bete aurretik, koniferoen gainerako espezieetan.

— 18 urte bete aurretik, hostozabalen espezieetan.

Kimuen aukeraketa 10 urte arte lagunduko da diruz, gehienez ere behin, lursail bakoitzeko. Hobetze mozketak 10 urtetik gora lagunduko dira diruz, gehienez ere behin, lursail bakoitzeko.

Bakanketa izango da mendi basatiko garaian oin txarrenak kentzea, baso guztian modu homogeneoan jardunez. Gehienezko adina lehen inausketaren garaikoa izango da. Jarduera bakar bat lagunduko da diruz.

5. Lehentasun irizpideak.

Onuradunak hautatzeko puntuazio sistema bat jarraituko da, honako irizpide hauen arabera:

1.— Jarduerak, Administrazioak onartutako Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoak edo Antolaketa Proiektuak dituzten mendietan: 25 puntu.

2.— Pertsona onuradunaren adina ≤ 55 urte: 10 puntu.

3.— Nekazaritza ustiategia, nekazaritza edo abeltzaintza sektoreari dagokion Nekazaritzako Lan Unitatea (ALU) 0,5-koa edo handiagoa duena: 10 puntu.

Puntuetan berdinketa izanez gero, aurrekontu txikiagoa duten inbertsioak lehenetsiko dira.

*23. oinarria. 08.6 azpineurria: Basogintzako teknologietarako eta baso-produktuak eraldatzeko, mobilizatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.*

1. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Dirulaguntzaren helburua da baso potentziala hobetzeko inbertsioak edo basogintzako produktuen balioa handituko duten eraldaketa, mobilizazio eta merkaturatze inbertsioak sustatzea.

Hauek dira azpineurri honek barne hartzen dituen lanak:

— Birlandaketa egin ondorengo 12 urteetako basogintzako jarduerak.

— Mendian sortzen diren basogintzako azpiproduktuak eta hondakinak aprobetxatzeko jarduerak.

Azpineurri honen barruan, honako jarduera hauek sor ditzaketen kostuak lagunduko dira diruz:

a. Kudeaketa pribatuko mendietan basogintzako kudeaketa iraunkorrari buruzko txosten teknikoak eta plan teknikoak egitea.

b. 12 urte baino gehiagoko basoei lotutako kostuak: sastrakak kentzea eta basogintzako lanei lotutako garbiketak, lehen entresakak, hazkundeko adar mozketak, energia erabilerarako biomasa bilketa, goi inausketak eta ongarritzeak.

2. Laguntzen zenbatekoa eta ehunekoa.

Dirulaguntzak modulu eta ehuneko hauen arabera emango dira:

No se subvencionarán las podas defectuosas que produzcan daño al tronco del árbol o a la calidad de la formación de madera posterior a la poda. Tampoco se subvencionarán aquellas podas abusivas o excesivamente prematuras.

La poda baja deberá afectar como mínimo a 2 m de fuste y como máximo a la mitad de la altura del árbol. Se realizarán:

— Antes de los 12 años en la especie pino insignis.

— Antes de los 16 años en las especies de coníferas.

— Antes de los 18 años en las especies de frondosas.

La selección de brotes se subvencionará hasta los 10 años un máximo de una vez por parcela. Los resalveos se subvencionarán a partir de los 10 años un máximo de una vez por parcela.

El clareo se entenderá como la eliminación de los peores pies en la edad de monte bravo y actuando de manera homogénea sobre el conjunto de la masa. La edad máxima de ejecución será la de la primera poda. Se subvencionará una única actuación.

5. Criterios de prioridad.

Se seguirá un sistema de puntuación basándose en los siguientes criterios de selección de las personas beneficiarias:

1.— Actuaciones en montes con Proyectos de Ordenación o Plan Técnico de Gestión forestal sostenible (PTGFS) aprobado por la Administración: 25 puntos.

2.— Edad de la persona beneficiaria ≤ 55 años: 10 puntos.

3.— Explotación agraria con unidad de trabajo agrario (UTA) correspondiente al sector agrícola o ganadero superior o igual a 0,5:10 puntos.

En caso de empate a puntos, se priorizarán las inversiones que supongan un menor presupuesto.

*Base 23. Submedida 08.6: Inversiones en tecnologías forestales y en transformación, movilización y comercialización de productos forestales.*

1. Actuaciones subvencionables.

La ayuda tiene por objeto fomentar las inversiones destinadas a la mejora del potencial forestal o a la transformación, movilización y comercialización de los productos forestales para aumentar su valor.

Esta submedida, contempla los siguientes tipos de operaciones:

— Actuaciones selvícolas posteriores a los 12 años tras la realización de la repoblación.

— Operaciones relativas al aprovechamiento de subproductos y residuos forestales obtenidos en el monte.

Serán subvencionables desde esta submedida los costes de las siguientes operaciones:

a. La elaboración de los informes técnicos y planes técnicos de gestión forestal sostenible en montes de gestión privada.

b. Los costes ligados a bosques de más de 12 años: desbroces y limpiezas de maleza ligados a trabajos selvícolas, primeras claras, cortes de formación, recogida de biomasa para uso energético, podas altas, y abonados.

2. Importes aplicables y porcentaje de ayuda.

Las ayudas se concederán en base a los módulos y porcentajes siguientes:

EK\CV GAO-I-2021-02698

<table>
<tr><th>Jarduera<br>Actuación</th><th>Deskribapena<br>Descripción</th><th>Modulua<br>Módulo<br>(€/ha)</th></tr>
<tr><td colspan="2">Sastrakak kentzea - Desbroces</td><td>480</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Bakanketak - Claras</td><td>Koniferoen bakanketa ez emankorra, gerakinak kendu gabe<br>Clara improductiva coníferas sin eliminación de restos</td><td>530</td></tr>
<tr><td>Hostozabalen bakanketa ez emankorra, gerakinak kendu gabe<br>Clara improductiva frondosas sin eliminación de restos</td><td>555</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Inausketak - Podas</td><td>Hostozabalen hazkundeko adar mozketak, gerakinak kendu gabe<br>Cortes de formación frondosas sin eliminación de restos</td><td>260</td></tr>
<tr><td>Koniferoen goi inausketa<br>Poda alta coníferas</td><td>635</td></tr>
<tr><td>Hostozabalen goi inausketa<br>Poda alta frondosas</td><td>610</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ongarritzea - Abonado</td><td>450</td></tr>
</table>

Dirulaguntzaren oinarrizko portzentajea % 50 izango da.

Dirulaguntzaren oinarrizko portzentaje hori % 90 arte handitu ahal izango da, eskaera egitean gorabehera hauek gertatzen badira:

— Eskatzailearen adina ≤ 55 urte: % 15 arteko gehikuntza.

— Nekazaritza ustiategia, nekazaritza edo abeltzaintza sektoreari dagokion Nekazaritzako Lan Unitatea (ALU) 0,5-koa edo handiagoa duena: % 10 arteko gehikuntza.

— Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoa (BKIPT) onartuta edukitzea: % 10 arteko gehikuntza.

— Ustiategiari baso azalera gehitu bazaio, 0,5 ha gutxienez azken urtean, betiere hasierako baso azalera 20 ha baino txikiagoa bada: % 5 arteko gehikuntza.

Modulatu gabeko kostuen kasuan, egindako inbertsioaren kostu erreala hartuko da laguntzaren zenbatekoak kalkulatzeko oinarritzat, betiere kostuen moderazio printzipioa kontuan hartuta. Kasu hauetan inbertsioa zuritzeko faktura aurkeztu beharko da. Kostua Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuaren txostenaren bidez moderatu daiteke.

Gutxieneko jarduera azalera 0,5 hektarea izango da. Basogintzako kudeaketa iraunkorreko planak idaztean eta ezartzean ez da gutxienekorik egongo.

Diruz lagundu daitekeen gehienezko inbertsioa edo inbertsioen guztizkoa 60.000 € izango da onuradun eta deialdi bakoitzeko.

3. Onuradunak.

Dirulaguntza hau jasotzeko aukera izango dute lur pribatuen titularrek.

4. Baldintza bereziak.

Basoen balio ekonomikoa handitzeko baso hobekuntzako inbertsioen kasuan, aurreikusitako hobekuntzak azaltzen dituen memoria eskatu ahal izango da.

A) Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoak (BKIPT).

Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoak (BKIPT) Gipuzkoako mendiei buruzko 7/2006 Foru Arauan eta oinarri hauetan bertan xedatutakoaren arabera idatziko dira eta, ahal dela, titularraren baso azalera guztia jasoko dute.

Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoek ondoko betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Eremu geografiko homogeneo batean (udalerri berean edo mugakide diren udalerrietan) kudeaketa tresna hori erabiltzen duten titular baten partzela guztiak plan bakarrean jaso beharko dira.

El porcentaje básico de subvención será del 50 %.

Este porcentaje básico de ayuda se verá incrementado, hasta un máximo del 90 %, en los siguientes porcentajes en caso de concurrir alguna de estas circunstancias en el momento de realizar la solicitud:

— Edad del/la solicitante ≤ 55 años: incremento de un 15 %.

— Explotación agraria con unidad de trabajo agrario (UTA) correspondiente al sector agrícola o ganadero superior o igual a 0,5: incremento de un 10 %.

— Contar con un Plan Técnico de Gestión Forestal Sostenible (PTGFS) aprobado: incremento de un 10 %.

— Explotación en la que se haya incrementado la superficie forestal en al menos 0,5 has en el último año, siendo la superficie forestal inicial inferior a 20 has: incremento de un 5 %.

Para aquellos costes no modulados los importes de ayuda se calcularán en base al coste real de la inversión realizada, atendiendo siempre al principio de moderación de costes. En estos casos la inversión deberá justificarse con la presentación de la factura. El coste podrá ser moderado por informe del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats.

La superficie mínima de actuación será de 0,5 hectáreas. En la redacción e implantación de planes de gestión forestal sostenible no habrá límite mínimo.

La inversión o suma de inversiones máximas auxiliables por persona beneficiaria y convocatoria será de 60.000 €.

3. Personas beneficiarias.

Podrán ser beneficiarias de esta ayuda las personas titulares de tierras privadas.

4. Requisitos de carácter específico.

En las inversiones selvícolas de mejoras forestales para incrementar el valor económico de los bosques, se podrá requerir una memoria explicativa en relación a las mejoras previstas.

A) Planes técnicos de gestión forestal sostenible (PTGFS).

Los PTGFS se redactarán de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral 7/2006 de Montes de Gipuzkoa y en estas bases y se referirán preferentemente a la totalidad de la superficie forestal que posea la persona beneficiaria.

Los PTGFS deberán cumplir, además, los siguientes requisitos:

a) Las parcelas de una persona titular sometidas a este instrumento de gestión en un ámbito geográfico homogéneo (mismo municipio o municipios colindantes) deberán incluirse en un único plan.

EK\CV GAO-I-2021-02698

b) Ez da gutxieneko azalera bat ezartzen plan teknikotzat jo ahal izateko.

c) Ondorengo eduki hauek jaso beharko dituzte:

1. Baso Kudeaketako Plan Teknikoaren datu orokorrak, izenburua, idazketa taldea, idazketa data eta indarraldia adierazita.

2. Finkaren deskribapen legala eta administratiboa. Titularraren, jabearen eta kudeatzailearen datuak sartu beharko dira (azken bi horiek lehenengoarekin bat ez badatoz bakarrik). SIGPACeko eta nekazaritza ustialekuen erregistroko datuak.

3. Partzelazioa. Finka jarduera unitateetan edo modu homogeneoan jarduteko aukera ematen duten lur sailetan banatuko da. SIGPAC unitateen eta jarduera unitateen arteko korrespondentzia adieraziko da.

4. Planean jasotako azalera osoari dagozkion ingurune fisiko eta naturalaren deskribapenaren datu orokorrak. Klimaren, landarediaren eta faunaren ezaugarri aipagarrienen deskribapen orokorra egingo da.

5. Jarduera unitateen deskribapen fitxa. Ondorengo gai hauei buruzko datu aipagarrienak deskribatuko dira: fisiografia, lurzorua, hidrografia, bide azpiegiturak, ehiza eta arrantza jarduerak, abeltzaintza eta jolas jarduerak, ondare historikoa eta kulturala, naturgune babestuen zati izatea, landare eta animalia espezie mehatxatuak egotea, interes komunitarioko habitatak, ekotonoak, zuhaitz edo ingurune bereziak. Aurreko datu horietatik jarduera unitate guztietarako homogeneotzat jotzen direnak 3. atalean sartu ahal izango dira. Deskribapena osatzeko baso egoerari eta egindako plangintzari buruzko datuak emango dira.

6. Ustiaketen eta jardueren programa. Egin beharreko lanen laburpen taula bat egingo da, jarduera unitateen eta urteen arabera.

7. Inbertsioen eta diru sarreren plangintza, planaren indarraldian.

8. Tokian bertan egindako laginketaren datuak.

9. Kartografia. Honako hau jasoko da:

a) Partzelen kokapenaren plano orokorra, eskala egokian.

b) SIGPAC planoa, Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoan jasotako katastroko partzelak bereizita.

c) Plano topografikoa xehetasuneko eskalan, partzelen mugak, jarduera unitateen banaketa, ur-lasterrak eta azpiegiturak zehaztuta.

d) Gaikako mapak, 3. eta 4. puntuetan aipatutako ingurune fisikoaren eta naturalaren deskribapenak jasotzen dituztenak.

10. Ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa, beharrezkoa den neurrian.

11. Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoa titularrak/kudeatzaileak, jabeek (dauden kasuan) eta idazleek sinatuta aurkeztu behar da.

d) Oro har, planak 20 urteko indarraldia izango du. Planaren indarraldia amaitzen denean, luzatu ahal izango da, berrikuspena egin ondoren, 20 urteko aldietarako.

Egiaztatutako arrazoiak daudenean, Baso Kudeaketa Iraunkorreko plan teknikoak indarraldia amaitu aurretik berrikusi ahal izango dira, interesatuek hala eskatuz gero. Eskumena duen agintaritzak plana eten dezake bertan jasotako jarduerei buruzko ez betetze larriak edo jakinarazi gabeak gertatu direla antzemanez gero. Planean aurreikusitako jardueraren baten funtsezko aldaketa egin aurretik Baso Administrazioari jakinarazi beharko zaio.

B) Sastrakak kentzea.

Baso lanekin lotuta dauden sastraka kentzeak gehienez ere bitan jasoko dute dirulaguntza txandan zehar.

b) No se establece una superficie mínima para que pueda considerarse plan técnico.

c) Deberán incluir los siguientes contenidos:

1. Datos generales del Plan Técnico de Gestión Forestal, en el que se hará constar el título, equipo redactor, fecha de redacción y periodo de vigencia.

2. Descripción legal y administrativa de la finca. Deben incluirse los datos de la persona titular, propietaria y gestora (estas dos últimas sólo si son distintas de la primera). Datos de SIGPAC y del registro de explotación agraria.

3. Parcelación. La finca se dividirá en unidades de actuación o superficies en las que se puede actuar de forma homogénea. Se reflejará la correspondencia entre unidades SIGPAC y de actuación.

4. Datos generales descriptivos del medio físico y natural para toda la superficie incluida en el plan. Se hará una descripción general de las características más relevantes del clima, vegetación y fauna.

5. Ficha descriptiva de las unidades de actuación. Se describirán los datos más relevantes de fisiografía, suelo, hidrografía, infraestructuras viarias, actividades cinegéticas y piscícolas, actividades ganaderas y recreativas, patrimonio cultural e histórico, pertenencia a espacios naturales protegidos, presencia de especies amenazadas de flora o fauna, hábitats de interés comunitario, ecotonos, árboles o entornos singulares. Los datos anteriores que se consideren homogéneos para todas las unidades de actuación podrán integrarse en el apartado 3. Se completará esta descripción con los datos relativos al estado forestal y la planificación realizada.

6. Programa de aprovechamientos y actuaciones. Se hará un cuadro resumen de los trabajos a realizar por unidades de actuación y por años.

7. Planificación de inversiones e ingresos en el periodo de vigencia del plan.

8. Datos del muestreo de campo.

9. Cartografía. Se incluirá la siguiente:

a) Plano general de situación de las parcelas a escala adecuada.

b) Plano SIGPAC donde se diferencien las parcelas catastrales incluidas en el PTGFS.

c) Plano topográfico a escala detallada, donde se especifiquen los límites de las parcelas, la distribución de las unidades de actuación, los cursos de agua y las infraestructuras.

d) Mapas temáticos que reflejen los aspectos descriptivos del medio físico y natural reseñados en los puntos 3 y 4.

10. Estudio de impacto ambiental, en el grado que sea preceptivo.

11. El PTGFS debe presentarse firmado por la persona titular/gestora o propietaria en su caso, y por el equipo redactor.

d) Con carácter general, la vigencia del plan será de 20 años. Una vez finalizado el periodo de vigencia, el plan podrá ser prorrogado, previa revisión, por periodos de 20 años.

A solicitud de las personas titulares, los planes se podrán revisar por causas justificadas antes de la expiración de su periodo de vigencia. La vigencia del plan podrá ser suspendida cuando la autoridad competente detecte incumplimientos graves y/o no comunicados relativos a las actuaciones contenidas en el plan. La modificación sustancial de alguna actuación contemplada en el mismo deberá ser comunicada previamente a la Administración Forestal.

B) Desbroces.

Los desbroces asociados a trabajos selvícolas se subvencionarán en un máximo de dos veces a lo largo del turno.

EK\CV GAO-I-2021-02698

C) Kimaketak.

Ez da dirulaguntzarik emango zuhaitzaren enborrari edo inausketaren osteko egur hazkundearen kalitateari kaltea eragiten dieten inausketa txarrengatik. Era berean, ez da laguntzarik emango neurriz gaineko edo garai aurreko inausketengatik.

Goi-inausketak gutxienez 5 metroko garaierara bitartean egingo dira, 350 oin/ha-ko gutxienekoaren gainean, eta inoiz ez adaburuaren garaieraren erdia baino gehiago.

Honela egingo dira:

— 16 urte bete aurretik, intsinis pinuetan.

— 22 urte bete aurretik, gainerako koniferoetan.

— 24 urte bete aurretik, hostozabalen espezieetan.

D) Hazkundeko adar mozketak.

Hostozabaletan hazkundeko adar mozketetarako dirulaguntzak, gehienez ere, 20 urte bete bitartean emango dira, eta gehienez ere bi aldiz.

E) Ongarritzea.

Ongarritze lanak gehienez ere hirutan egingo dira txandan zehar eta hiru urte pasa baino lehenago ezingo dira errepikatu. Erabiliko diren ongarriak fosfatoan aberatsak izango dira, nitrogeno, fosforo eta potasioren arteko erlazioa 1:3: 2 gomendatzen delarik. 12 urte baino zaharragoak diren landaketetan gehienez 500 kg/ha erabiliko dira eta gutxienez 150 kg/ha. Ongarritu aurretik, behar adina aurrerapenarekin, basozainei hasiera egunaren abisua emango zaie, dagokion egiaztapena egin dezaten.

F) Lehen entresakak.

Lehen entresaka diruz lagunduko da baso berritzearen bidez sortutako basoetan soberako oinak kentzea sustatzeko. Horretarako ondorengo baldintza hauek ezartzen dira adinari eta entresakaren intentsitateari dagokienez:

C) Podas.

No se subvencionarán las podas defectuosas que produzcan daño al tronco del árbol o a la calidad de la formación de madera posterior a la poda. Tampoco se subvencionarán aquellas podas abusivas o excesivamente prematuras.

Las podas altas se realizarán como mínimo hasta 5 m. de altura, sobre un mínimo de 350 pies/ha y nunca más de la mitad de la altura de la copa.

Se realizarán:

— Antes de los 16 años en las especies pino insignis.

— Antes de los 22 años en las demás coníferas.

— Antes de los 24 años en las frondosas.

D) Cortes de formación.

En las frondosas, los cortes de formación se subvencionarán como máximo hasta los 20 años y hasta un máximo de dos veces.

E) Abonado.

Las labores de abonado se realizarán un máximo de tres veces en el turno, no pudiéndose repetir en el plazo de 3 años. Los abonos a utilizar serán ricos en fosforo siendo aconsejable relaciones 1:3: 2 para el nitrógeno fósforo y potasio. Las cantidades a aplicar serán de un máximo de 500 kg/ha y mínimo de 150 kg/ha para edades posteriores a los 12 años. Con antelación suficiente a su realización deberá avisarse al guarda forestal del día de inicio para su comprobación.

F) Primeras claras.

Se subvencionará la primera clara para fomentar la eliminación de pies sobrantes en las masas creadas por repoblación bajo las siguientes condiciones de edad e intensidad de clara:

| *Espezieak*<br>*Especies* | *Adina*<br>*Edad* | *Gehieneko zuhaitz kopurua hektareako*<br>*N.º máximo de árboles a dejar por hectárea* |
|---|---|---|
| Intsinis pinua eta itsas pinua<br>Pinos insignis y marítimo | 15 urte baino lehen<br>Antes de los 15 años | 850 |
| Alertzea<br>Alerce | 18 urte baino lehen<br>Antes de los 18 años | 800 |
| Douglas izeia<br>Abeto douglas | 20 urte baino lehen<br>Antes de los 20 años | 900 |
| Larizio pinua<br>Pino laricio | 22 urte baino lehen<br>Antes de los 22 años | 950 |
| Lawson altzifrea<br>Ciprés de lawson | 25 urte baino lehen<br>Antes de los 25 años | 1.000 |
| Haritz amerikarra<br>Roble americano | 25 urte baino lehen<br>Antes de los 25 años | 600 |
| Txanda ertaineko beste hostozabal batzuk<br>Otras especies de crecimiento medio | 25 urte baino lehen<br>Antes de los 25 años | 800 |
| Txanda luzeko beste hostozabal batzuk<br>Otras especies de crecimiento lento | 35 urte baino lehen<br>Antes de los 35 años | 800 |

Intsektu eskolitidoak edo suteak ugaritzeko arriskua dagoenean, lehen entresakan kendutako oinak atera beharko dira.

08.6 azpineurri honen barruan ez dira diruz lagunduko:

Artikulu honetan jasotako laguntzak ez dira aplikatuko eukalipto edo epe motzera begira landatzen diren hazkunde azkarreko beste espezie batzuen kasuan, ez eta Eguberrietako zuhaitzen edo ofizialki inbaditzailetzat jotakoen kasuan ere. Intsinis pinuaren kasuan ere ez dira aplikatuko, basoberritzea ez bada diruz lagundu arrazoi fitosanitarioengatik.

Cuando exista riesgo de proliferación de insectos escolítidos o incendios deberán extraerse los pies eliminados en la primera clara.

No serán subvencionables desde esta submedida 08.6:

Las ayudas recogidas en este artículo no serán de aplicación para el eucalipto u otras especies de crecimiento rápido que se cultiven a corto plazo ni para los árboles de navidad ni para especies declaradas oficialmente invasoras. Tampoco lo serán en el caso de pino insignis cuya repoblación no haya sido subvencionada por razones fitosanitarias.

EK\CV GAO-I-2021-02698

5. Lehentasun irizpideak.

Onuradunak hautatzeko puntuazio sistema bat jarraituko da, honako irizpide hauen arabera:

1.— Jarduerak Administrazioak onartutako Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoa edo Antolaketa Proiektuak dituzten mendietan: 25 puntu.

2.—Pertsona onuradunaren adina ≤ 55 urte: 10 puntu.

3.—Nekazaritza ustiategia, nekazaritza edo abeltzaintza sektoreari dagokion Nekazaritzako Lan Unitatea (ALU) 0,5-koa edo handiagoa duena: 10 puntu.

Puntuetan berdinketa izanez gero, aurrekontu txikiagoa duten inbertsioak lehenetsiko dira.

III. ATALA. 15. NEURRIA: BASO-INGURUMENEKO ZERBITZUAK, KLIMA ZERBITZUAK ETA BASOEN ZAINTZA. DIRUZ LAGUNGARRIAK DIREN JARDUERAK, APLIKATZEKOAK DIREN ZENBATEKOAK ETA LAGUNTZAREN EHUNEKOAK, ONURADUNAK, BALDINTZA BEREZIAK ETA LEHENTASUN IRIZPIDEAK

*24. oinarria. Neurriaren xedapen komunak.*

1. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Neurri honen helburua da baso jabe pribatuek aldez aurretik eta borondatez Baso Administrazioaren aurrean hartu dituzten konpromisoei laguntzea, baso-ingurumeneko eta klimaren inguruko konpromisoak betetzeko.

Interes publikoko eremu eta egoeretan basoen eragin ekologiko eta babeslea bermatu eta areagotzearren bai udal administrazioen basoetan eta bai jabetza pribatukoetan egindako lanak dira artikulu honen arabera diruz lagundu daitezkeen jarduera eta inbertsioak. Kudeaketa zailtasun handiak dauzkatenak dira interes publikokoak, esaterako, ibaien eta errekastoen buruak, akuiferoen errekarga zonak, faunaren ugal eta babes tokiak eta balio bereziko paisaiak.

Azpineurri hauek daude neurri honen baitan:

a) 15.1 azpineurria: basoen ingurumen balioa handitzen duten landaketen kudeaketa.

b) 15.2 azpineurria: Espezie aloktonoen landaketak baso autoktonoekin ordeztea.

c) 15.3 azpineurria: Baso autoktonoen kontserbazioa.

2. Onuradunak.

Dirulaguntza hau jasotzeko aukera izango dute lur pribatuen titular eta kudeatzaileek eta horiei lotutako elkarteek.

3. Neurriaren baldintza orokorrak.

Onuradunak, dirulaguntzaren aplikazio aldi osoan zehar, honako konpromiso hauek bete beharko ditu:

Baso kudeaketa iraunkorreko plan teknikoari edo antolaketa proiektuari heltzea, 14.11 oinarrian ezarritako azalera baino handiagoko baso operazioen kasuan. Azalera txikiagoko ustialekuen kasuan, berriz, basogintzako teknikari gaitu baten txostena beharko da, non egingo diren jarduerak adieraziko diren.

4. Lehentasun irizpideak.

Onuradunak hautatzeko puntuazio sistema bat jarraituko da, honako irizpide hauen arabera:

1.— Natura 2000 Sarean sartuta dauden mendietako jarduerak: 25 puntu.

2.— Administrazioak onartutako Basoen Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoren batean edo basoen antolaketa proiekturen batean dauden mendietako jarduerak, eta Basoen Kudeaketa Iraunkorreko ziurtagiri sistema bati atxikita daudenak: 20 puntu.

5. Criterios de prioridad.

Se seguirá un sistema de puntuación basándose en los siguientes criterios de selección de las personas beneficiarias:

1.—Actuaciones en montes con Proyectos de Ordenación o Plan Técnico de Gestión forestal sostenible (PTGFS) aprobado por la Administración: 25 puntos.

2.—Edad de la persona beneficiaria ≤ 55 años: 10 puntos.

3.—Explotación agraria con unidad de trabajo agrario (UTA) correspondiente al sector agrícola o ganadero superior o igual a 0,5:10 puntos.

En caso de empate a puntos, se priorizarán las inversiones que supongan un menor presupuesto.

SECCIÓN III. MEDIDA 15: SERVICIOS SILVOAMBIENTALES Y CLIMÁTICOS Y CONSERVACIÓN DE LOS BOSQUES. ACTUACIONES SUBVENCIONABLES, IMPORTES APLICABLES Y PORCENTAJE DE AYUDA, PERSONAS BENEFICIARIAS, REQUISITOS ESPECÍFICOS Y CRITERIOS DE PRIORIZACIÓN

*Base 24. Disposiciones comunes a la medida.*

1. Actuaciones subvencionables.

Esta medida se desarrolla para ayudar los compromisos que previamente y voluntariamente hayan adquirido ante la Administración Forestal los titulares forestales privados para dar cumplimiento a uno o varios compromisos silvoambientales y climáticos.

Las actuaciones e inversiones subvencionables amparadas en este artículo son las referidas a las prácticas a realizar en los bosques tendentes a mantener y mejorar la estabilidad ecológica y protectora de dichos bosques, en las zonas y casos considerados de interés público, por presentar una alta fragilidad en su manejo, tales como las cabeceras de ríos y regatas, zonas de recarga de acuíferos o áreas de cría y refugio de la fauna o de un apreciable valor paisajístico.

Las submedidas contempladas dentro de esta medida son:

a) Submedida 15.1: Gestión de plantaciones forestales que incremente el valor medioambiental de los mismos.

b) Submedida 15.2: Sustitución de plantaciones forestales con especies alóctonas por bosques autóctonos.

c) Submedida 15.3: Conservación de bosques autóctonos.

2. Personas beneficiarias.

Podrán ser beneficiarias de esta ayuda las personas titulares y gestoras de tierras privadas y sus asociaciones.

3. Requisitos generales de la medida.

La persona beneficiaria quedará obligada, durante el período de aplicación de la ayuda, a cumplir los siguientes compromisos:

Acogerse a un plan técnico de gestión forestal sostenible o proyecto de ordenación, en el caso de operaciones forestales que afecten a superficies superiores a las establecidas en la base 14.11. En el caso de explotaciones de superficies inferiores, será preceptivo un informe de un técnico forestal cualificado donde se establezcan las actuaciones a realizar.

4. Criterios de prioridad.

Se seguirá un sistema de puntuación basándose en los siguientes criterios de selección de las personas beneficiarias:

1.— Actuaciones en montes incluidos en la Red Natura 2000:25 puntos.

2.— Actuaciones en montes con Proyectos de Ordenación o Plan Técnico de Gestión forestal sostenible (PGTFS) aprobado por la Administración y adscritos a un sistema de certificación de la Gestión Forestal Sostenible: 20 puntos.

EK\CV GAO-I-2021-02698

3.— Ziklo erdiko edo luzeko hazkuntza duten espezietara bideratutako proiektuak: 5 puntu.

Puntuetan berdinketa izanez gero, aurrekontu txikiagoa duten inbertsioak lehenetsiko dira.

*25. oinarria. 15.1 azpineurria: Basoen ingurumen balioa handitzen duten landaketen kudeaketa.*

1. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Operazio honen helburua da basoen ingurumen balioa handitzeko kudeaketa bultzatzea konpromiso batzuk betez.

Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

— Txanda luzatzea edo azken mozketak atzeratzea, Natura 2000 sareko guneetan intereseko diren habitatak edo fauna eta/edo flora espezieak babesteko.

— Baso lurrak babesteko neurriak, basoa ustiatu, garraiatu eta birsortzen den bitartean eragin txikiko metodoak erabiliz.

— Basoa berregituratzeko neurriak, biodibertsitatea eta erresilientzia klimatikoa hobetzeko bigarren estalkia eta/edo birsortze natural egokia lortzeko.

— Mozketa eragina gutxitzea, erabat moztu beharrean estalki jarraitua uztea bezalako metodoak erabiliz eta/edo baso egiturak mosaikoan utziz.

— Mozketaren eragina gutxitzea, zura ateratzeko pista berriak egin beharrean, kablea erabiltzearen edo animaliek tiratzearen alde eginez.

— Zuhaitz edo zuhaixka espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko neurriak.

2. Laguntzen zenbatekoa.

Laguntza zuhaizti hektarea bakoitzeko hobarian datza. Urteko gehienezko zenbatekoa 200 €/ha izango da. Zenbateko hori justifikatu egin beharko da, konpromisoari eusteak dakartzan kostu gehigarrien edo diru sarreren galeren arabera.

Urteko gehienezko zenbatekoa 5.000 € izango da.

Konpromisoak zazpi urte artekoak izan daitezke. Nolanahi ere, ezinbestekoa bada eta behar bezala justifikatuz gero, aldi luzeago bat ezar daiteke. Konpromisoaren iraupena hartutako konpromiso motaren arabera zehaztuko da.

Laguntzak urtero emango dira. Hala ere, justifikatutako kasuetan, aldi bakarrean ordaindu ahal izango da urte horiei dagokien laguntza.

3. Baldintza bereziak.

Lurrak baso erabilera izango du gaur egun. Laguntza honetatik kanpo geratzen dira errotazio laburreko egurretarako espezieek betetzen dituzten basogintzako eta/edo nekazaritzako lurrak.

Partzelen gutxieneko azalera 5.000 m²-koa izango da.

Ezinbestean bete beharko dira baso kudeaketa iraunkorreko praktika hauek:

— Errespetatzea identifikatuta dauden paisaiaren eta ondare natural edo kulturalaren intereseko elementuak: habitat bereziak, erriberak, ekotonoak, espezie mehatxatuak eta abar.

— Mozketak egitean zutik uztea, egonez gero, zuhaiztiak osatzen dituzten zuhaitz espezie naturalak, oin zaharrak, hilak, lehorrak edo eraitsiak barne. Lan hori egiteko, kontuan hartuko dira arrisku fitosanitarioen eta sute arriskuen muga egokiak.

— Basolanetan egoki diren neurri prebentiboak hartzea ibai ibilguetan eta hezeguneetan izan daitezkeen kalteak gutxitzeko, beharrezkoa balitz, zubi eramangarriak edo eragin txikiko beste metodo batzuk erabiliz.

3.— Proyectos orientados a especies de crecimiento de ciclo medio o largo: 5 puntos.

En caso de empate a puntos, se priorizarán las inversiones que supongan un menor presupuesto.

*Base 25. Submedida 15.1: Gestión de plantaciones forestales que incremente el valor medioambiental de los mismos.*

1. Actuaciones subvencionables.

Esta operación tiene como objetivo impulsar la gestión de los bosques de forma que se incremente su valor medioambiental mediante el cumplimiento de una serie de compromisos.

Las actuaciones subvencionables son las siguientes:

